



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/07/04 Udaletxean 18.00-20:30



Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Bere ez egotea justifikatu du: Patxi Arrospide (Herritarra)
Carlos Gonzalez (Irabazi)
Edurne Huesa (Landarlan)
Joseba Aranburu (EAJ)
Adur Ezenarro (Bildu)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Aurreko aktaren onarpena
2. Ordenantza
3. Edukiontzien ordainketaren ebazpena
4. Hainbat gai

Aurreko aktaren onarpena

EAJ: Aktarekin hasi aurretik hiru puntualizazio egiten ditu:

1. Ordenantzaren lanketan hasi gara eta nik aurretik zerbitzuaren ezagutza handia duen teknikari baten presentzia eskatu nuen. Hau da zerbitzu burua edo berak adierazten duen pertsona bat.

TEKNIKARIA: Gaur hitz egin dugu eta zinegotziak parte hartze hau begiratu egin behar dutela esan dit.

EAJ: Beste puntualizazioa da, aktak zerbitzuburuari pasatzea eta berak bere aldetik lantzea. Sasietara ere bidali beharko litzateke.

TEKNIKARIA: Udalak Sasietarekin duen kontratua edo konbenioa eskatuko dut. Itsasoko udalerria Goierriko eskualdean sartu behar du eta Sasietako estatutuak aldatu egin behar dira.

TEKNIKARIA: Ordiziak isunak jartzeko eskaera egin dio Sasietari baina hau beraien estatutuetan ondo zehaztu gabe dagoenez (Bilketa exekutiboa ondo zehaztu gabe), ez dituztenez eskumen guztiak, ezin dituzte isunak jarri. Beraz, estatutuak aldatu egin behar dituzte.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/07/04 Udaletxean 18.00-20:30



EAJ: Hau konpondu eta gero, isuna nork kobratuko luke?

TEKNIKARIA: Nik hori ez dakit, baina ordenantza Sasietakoa da.

NEKANE: Udal guztiek erabaki beharko dute hori nola izango den.

EAJ: Nik esaten nuenean akta pasatzea zerbitziburua eta Sasietari, ordenantzari dagokion atala esan nahi nuen.

ORDIZIA ORAIN: Aurreko bileran esan genuen hemengo gaiak idatzita Sasietara bideratuko genituela.

TEKNIKARIA: Ordenantza ere Udalean juridikoki aztertu behar da.

EAJ: Azken puntualizazioa, ordenantza udaleko teknikari ezberdinen artean landu behar da, Obratako departamentuak ere honen berri eduki behar du eta hondakin mahaiak onartu eta ondoren plenora eman behar da onartzeko.

ORDIZIA ORAIN: Gure taldeari komisiok ahalmen ekonomikoa edukitzea beharrezkoa dela iruditzen zaio. Horrela, Ibarbia kaleko arazoa konponduta izango genuen.

TEKNIKARIA: Ibarbia kaleko gaia gero landuko dugu.

ORDIZIA ORAIN: Aktaren inguruan, matizazio bat egin nahi dut. Esan nuen ordenantzak jaso behar dituela hondakinak era solido, likido eta gaseosoan baina esan nahi nuen hondakinak era solido, likido eta atmosferikoan.

Akta onartutzat ematen da.

ORDIZIA ORAIN: Harritu egin gaitu Oria ibaiaren garbiketarik kanpo Lazkao eta Beasain geratzeak.

TEKNIKARIA: Ordiziako Alkateak beste herri hauetako Alkateekin hitz egin du eta arazoa da gai hau Goiekitik ez dutela bideratu nahi. Joseba eta nik pentsatu dugu hondakin mahaiak hau bideratzea eta beste udalerriekin harremana lutzatzea.

Ordenantza

TEKNIKARIA: Sasietako eta Errenteriako ordenantzak aztertzekotan geratu ginen.

EAJ: Nik uste guk Sasietako ordenantzaren gainean lan egin behar dugula. Horrela, gure artikuluen organizazioa edo zenbakiak Sasietako artikuluen berdinak izango dira. Ordiziako ordenantzan eta Sasietako ordenantzan



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/07/04 Udaletxean 18.00-20:30



artikuluak zenbaki berdinean adierazi behar dira herritarrentzat errazago izateko.

Ez gara adostasun batetara iristen eta ordenantza lantzen hasten gara.

TEKNIKARIA: Landarlanetik bilerara ezin dutenez etorri beraien aportazioak bidali dizkirate.

ORDIZIA ORAIN: Lehenengo artikuluan azaltzen diren legeak bidaltzea eskatzen du.

EAJ: Ordenantzan zehaztu behar da Ordiziako udala dela azken arduraduna hondakinen kudeaketa egokia egiten, agian aurrekarian joan behar du.

TEKNIKARIA: Ikusiko dugu non joan beharko duen, aurrekarian edo artikulua batetan.

TEKNIKARIA: 3. artikuluan landarlanek aportazio bat egin du: balorizazioa (errausketa) jartzea eskatu du baina balorizazioa da, birziklapena + errausketa.

EAJ: Sasietako eta Ordiziako ordenantzan artikulua zenbakiz berdina izan behar dute. Gurea egiten dugu eta ondoren zenbakiak aldatzen ditugu Sasietakoaren berdina egiteko.

HERRI EKIMENA: Nik oso zentzuduna ikusten dut, gero aldaketa egitea ez da zaila izango.

TEKNIKARIA: Hori ondoren egingo dugu.

TEKNIKARIA: 5. artikuluan landarlanek aportazio bat egin du: komunikazio kanpaina jarri beharrean heziketa kanpaina jartzea eskatzen du.

EAJ: Udaleko zerbitzuak ere kale garbiketa, zakarrontzien bilketa, dira eta ordenantza honetan joan behar dute. Horregatik zerbitziburuen parte hartzea eskatzen dut.

ORDIZIA ORAIN: Zerbitzu hauek ere ordenantza honetan sartu behar dira.

TEKNIKARIA: 5 artikulua hauek idatzita pasako dizkizuet.

Edukiontzien ordainketa

TEKNIKARIA: Eredu ximple bat prestatu dut Sasietari bidaltzeko. Irabaziko Carlos-ek egindako aportazioak sartu ditut. Denak hau begiratu eta denen artean adostu behar dugu bidali beharreko eskaera hau.

NEKANE: Edukiontzien ordainketa zenbat kostatu den galdetzen du.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/07/04 Udaletxean 18.00-20:30



ORDIZIA ORAIN: 135.000 € gastatu dira. Ibarbia kaleko edukiontziak aparte.

Hainbat gai

IBARBIA KALEA

Gaur sinatu da terreno jabearekin hitzarmena. Urtebeteko kontratua, luzagarria eta lagatzea doan izan da.

Obrak Udalak egingo ditu eta jaien aurretik egin nahi ditu. Sasietari edukiontzien eskaera egin zaio.

HEZITZAILEAK

Hezitzaileak orain ez daude, azken eguna ekainak 12.

Mahaiak egin zuen eskaera hau eta zerbitzutako delegaritzak aurrera eman du.

Puntu hauetan egon dira: Iturtxo, Garagartza plaza atzealdean, Juan Amezketa, San Inazio, plaza Idoiaga, Urdaneta 68.

Orokorrean, jendeak oso ondo hartu du emandako informazioa. Atzerritarrekin arazoak informazioa ez dutelako ulertzen. Hezitzaileak formazioa jaso dute eta Sasietako informazioa banatu dute.

Delegaritzak zerbitzu hau gehiagotan jartzeko asmoa du.

EAJ: Zerbitzu hau ez bada iristen jende guztira aldatu egin beharko da, beste bide batzuk erabili jende guztiarengana iristeko. Komunikatzeko beste bide batzuk erabili (bilera zuzenak,).

ERRAUSGAILUAREN DATUAK

TEKNIKARIA: GHK-ri bi aldiz eskatu diot baina ez dut erantzunik jaso. Ekainak 13an eta ekainak 21ean gogorarazpena eta ondoren ekainak 28an.

NEKANE: Zer egiten dugu honen aurrean?

TEKNIKARIA: Berrito bidaliko dut eskaera. Bidalitako eskaera: Gaur egungo tratamenduaren kostua, errauskailua egin ondorengo kostua, errauskailua egitearen kostua eta gaikako bilketa tasak eragina izango duen kostu hauetan.

EDUKIONTZIAK JAIETAN

HERRI EKIMENA: Aurreko urtean jarri ziren edukiontziak eskatzea berriro ere.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/07/04 Udaletxean 18.00-20:30



Herritarren eskaera

JOSUNE&CLAUDE: 4 kexa aurkeztu ditugu eta ez dira iritsi mahai honetara.

TEKNIKARIA: Iturtxoko puntuaz ari gara hitz egiten eta bertako kexak mahai honetara ekarri dira.

JOSUNE&CLAUDE: Jendeak zaborra lurrean uzten du, ez du edukiontzi barrura sartzen.

HERRI EKIMENA: Puntu honetan hezitzaileak egon dira eta zer iruditu zaizue.

JOSUNE&CLAUDE: Hezitzaileak zeudenean ondo egiten zuten baina gero ez. Espaloia oso txikia da, poltsekin dena betetzen da eta negozio aurrean poltsak, arratoiak,..... daude. (Argazkiak aurkezten dituzte). Ordiziako beste puntuak ez daude inongo komertzioaren aurrean. Edukiontziak mugitzea eskatzen dugu. Garagartza plazako iskinean jartzea eskatzen dugu. Kexa hauek Osasungintzara luzatuko ditugu ez bada ezer egiten, osasunarentzako kaltegarria baita.

EAJ: Mahaiak zuen kexa jasoko du, arazoa konpontzeko gomendio bat egingo dugu.

JOSUNE&CLAUDE: Puntu hau Garagartza plazako izkinara mugitzea nahi dugu.

EAJ: Guk aztertzeko konpromisoa hartzen dugu. Zerbait gehiago nahi duzue? Gure laguntza izango duzue eta denbora bat beharko dugu arazoa konpondu ahal izateko. Soluzio bat ikusten badugu dagokion erakundeari proposatuko diogu.

JOSUNE&CLAUDE: Ze epeaz ari gara hitz egiten?

EAJ: Guk ez dugu ahalmen exekutiboa. Gure ahalmena kontsultiboa da.

JOSUNE&CLAUDE: Etxe bakoitzerako txartel gehiago eska daitezke, horrela agian zerbait hobetu daiteke. Lazkaon bi txartel dituzte.

TEKNIKARIA: Sasietak ez du uzten etxe bakoitzean bi txartel edukitzen.

EAJ: Puntu honetako arazoa oso larria da. Lehen lasaiago lan egiteko aukera ikusten bagenuen, orain honekin, soluzioa ahal den azkarren bilatu behar da.

JOSUNE&CLAUDE: Epeak jartzen ditugu. Organu kontsultibo bat zarete baina herriko politikoekin harremana izango duzue. Irailean esaten badiguzue ez dagoela soluziorik zer egingo dugu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2017/07/04 Udaletxean 18.00-20:30



HERRI EKIMENA: Mahai honetan udal zinegotziak daude eta arazo honi soluzioa bilatu behar diote. Gu hilean behin elkartzen gara eta hurrengo bilera irailean izango da. Gutako bakoitzak soluzioa aurkitzen saiatuko da.

JOSUNE&CLAUDE: Espaloia zein langilek garbitzen duen diferentzia handia dago.

EAJ: Zerbitzutako delegaritzari arazo hau konpontzeko hartu beharreko neurriak hartzeko eskaera egingo zaio.

Hondakin mahaiak arazo honi erantzun bat emango dio.

Hurrengo bilera

Iraileko bilera: irailaren 26an arratsaldeko 18:00etan.